

OINARRI ARAUTZAILEAK

LEHENENGOA.- Xedea

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Merkataritza Sailak eta Baturikek –Trapagarango Merkataritza eta Ostalarien Elkartek, MerkaSaretza-Meatzaldeko Behargintzarekin lankidetzan, oinarri hauen bidez TRAPAGARANGO ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN XII. EDIZIOA egingo du, 2026ko ekainaren 15etik 28ra, profesionalen sormena sustatzeko haien establezimenduak, produktuak edota zerbitzuak aurkezteko orduan, herritar eta berezoentzat erakargarri eginez, eta aldi berean tokiko jarduera ekonomikoa sustatu eta bultzatuz.

BIGARRENA.- Establezimendu parte-hartzaileak

Kale sestran erakusleihoa duen edozein establezimenduk har dezake parte lehiaketan:

- a) Establezimendua Valle de Trápaga-Trapagaran udalerrian egon beharko da kokatuta.
- b) Establezimenduak eratuta eta jardunean egon beharko dira oinarri hauek indarrean dauden artean.
- c) Merkataritza, ostalaritza edo zerbitzuak izatea haien jardun nagusia.

HIRUGARRENA.- Inskripzioa

Lehiaketan parte hartzea librea da eta inskripzioak ez die sortzen ezelako gasturik establezimendu parte-hartzaileei.

Parte hartu nahi duten establezimenduek, oinarri hauen edukia onartu eta betetzeko konpromisoa hartu behar dute, eta inskripzio-fitxa bete eta entregatu behar dute ezarritako epeen barruan. Interesaturiko establezimenduek Udalaren eta Baturiken webguneetan on-line eskuragarri dauden inprimaki bat betez egingo dute inskripzioa, 2026ko maiatzaren 25eko 9:00etatik hasi eta 2026ko maiatzaren 29ko 13:00ak arte.

Oinarri hauek ez baditu betetzen, establezimendu parte-hartzailea deskalifikatuta gera daiteke 2026ko Trapagarango ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN XII. EDIZIOTIK.

Informazio gehiago:

- Trapagarango Enplegu eta Herritarren Garapenerako Agentzia
C/ Nafarroa, 19
Tel. 94.486.31.96
- www.trapagaran.net
- www.baturiktrapagaran.com

LAUGARRENA.- Gaia eta balorazio-irizpideak

“Ginkana Trapagaranen” izango da edizio honetako gaia eta parte hartzen duen erakusleihoko bakoitza funtzezko honako irizpideak bete beharko ditu:

- Kanpaina erakusleihoan integratzea
- Kalitatea
- Sormena

Parte hartzen duen establezimendu bakoitzak lehiaketarako aurkezten duen erakusleihoan, eta ez beste leku batean, jarriko du ikusgai Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak eta Baturikek emandako lehiaketaren bereizgarria, edizio honetako parte-hartzaile gisa akreditatuko duena.

BOSGARRENA.- Epaimahaia

Arte eder, dekorazio, erakusleiho-apainketa eta merkataritzako hiru profesionalak osatuko dute epaimahaia.

Laugarren oinarrian aipaturiko balorazio-irizpideak kontuan izanik hartuko du erabakia epaimahaiak eta haren osaketa tokiko komunikabideetan emango da jakitera (www.trapagaran.net eta www.baturiktrapagaran.com), 2026ko Trapagarango Erakusleihoen Lehen Sariaren erakusleiho irabazlea bozkatzeko bilera egin baino lehen.

2026ko ekainaren 28a baino lehenago egingo duen bileran emango du ezagutzera bere erabakia epaimahaiak, egun horretan amaitzen baita erakusleihoak ikusgai egoteko aldia.

Epaimahaiak, justifikaturiko arrazoiengatik, lehiaketa hau huts deklaratu dezake eta saria eman gabe geratu daiteke.

SEIGARRENA.- Herritarren partaidetza

Publikoak bi modutara bozkatu dezake gehien gustatu zaion erakusleihoaren alde:

1.- Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak herritar guztien postontzietan utziko duen flyer-a betez. (Eskuragarri egongo da honako lekuetan ere bai: Caja Rural de Navarran, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eta Udal Liburutegian). Bete ondoren, gorago aipatutako tokietan jarriko diren hautetsontzietan sartuko dira, 2026ko ekainaren 15etik 29ra arte.

Botu horien kontaketa 2026ko ekainaren 30ean egingo da Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eta botorik gehien lortzen duen establezimenduak Lehiaketaren Bigarren Saria irabaziko du.

2.- Facebook-en bidez bozkaturuz, ekainaren 22tik 28ra arte. Sare sozial horren bidez egindako botoak zenbatu ondoren, botorik gehien lortzen duen establezimenduak jasoko du Trapagarango 2026ko Erakusleiho Lehiaketaren Hirugarren Saria.

Botu horien kontaketa 2026ko ekainaren 30ean egingo da Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian, paperezko botoen kontaketa egin eta gero.

Informazioa eta sarbideak:

Facebook/baturiktrapagaran
www.trapagaran.net

Pertsona bakoitzak behin baino ezin izango du bozkatu modalitate bakoitzean.

ZAZPIGARRENA.- Erakusleiho Lehiaketako Sariak

Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak eta Baturikek honako sari hauek banatuko dituzte parte hartzen duten establezimenduen artean:

- **LEHENENGO SARIA** (“EPAIMAHAIAREN SARIA”): diploma bat, trofeo bat, Radio 7n igorriko diren publizitate-iragarkiak, 363 €-tan baloratuak eta Udalak eskainitako 300 €-ko saria eskudirutan.
- **BIGARREN SARIA** (“PUBLIKOAREN SARIA”): diploma bat, trofeo bat eta Udalak eskainitako 200 €-ko saria eskudirutan.
- **HIRUGARREN SARIA** (“BATURIK ERAKUSLEIHOAREN SARIA”): diploma bat, trofeo bat; publizitate-diseinuko zerbitzuak, Onmotivak eskainiak, 121 €-tan baloratuak (BEZ barne); eta 200 €-ko txartel bat, Baturikek eskainia, erosketak egiteko elkarteko establezimenduetan.

Irabazle guztientzat: ENTRAPAGARAN.COM eskualdeko egunkarian saridun guztien artean partekatutako erreportaje bat argitaratzea, 800 €-tan baloratua.

Sari guztiak dute BEZa barne.

Lehiaketan parte hartzen duen establezimendu bakoitzak sari bakar bat jaso dezake, hirugarren saria izan ezik, zeina beste bi sarietako edozeinekin bateragarria izango den. Gainera, hirugarren sari honetan aukera izango duten establezimendu bakarrak Baturik elkarteari atxikitutako establezimenduak izango dira.

2026ko uztailaren 1ean emango da jakitera, tokiko komunikabideetan (www.trapagaran.net eta www.baturiktrapagaran.com), zeintzuk diren Erakusleihoen Lehiaketako irabazleak.

OHARRA: Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, beste erakunde batzuek ematen dituzten sariak azken orduan aldatu edo bertan behera utzi ahal izango dira, eta horren berri izan bezain laster jakinaraziko da.

Udalak emandako goian aipatutako sariei dagokie sarien banaketa, oinarri hauetan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera arautuko da. Horietan aurreikusita ez dagoenerako, osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Udaleko Tokiko Merkataritza Saila izango da.

Parte-hartzaileen betekizunak: Ezin izango dute deialdi horietan parte hartu pertsona fisiko, juridiko edo entitateek, baldin eta deialdi bakoitzean ezarritako parte hartzeko baldintza espezifikoak beteta ere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan dirulaguntzak jasotzeko ezarritako debeku-kausaren batean sartuta badaude. Era berean, parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte

Segurantzarekikoak, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere bai, aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritako moduan.

Udalak emandako sariak, guztira 500€-ko balioa izango dutenak, 4310-47000 zenbakiko aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio.

Udalak emandako sari horiek saridunak Udaleko Enplegu eta Toki Garapenerako Agentzian horretarako ematen duen banku-kontuan ordainduko dira. Halaber, goian adierazitako betebeharrak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa erantsi beharko du.

ZORTZIGARRENA.- Parte hartzen duten herritarrentzako sariak

Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak eta Baturik-ek bozketa herrikoietan parte hartzen dutenen artean sari bat banatuko du bozketa-modalitate bakoitzeko, baina pertsona berak ezin izango du bi modalitateetako saria jaso (paper eta Facebook bidezkoetan).

Paperezko bozketaren bidez parte hartzen duen publikoarentzako sariaren zozketa egiteko paper bat aterako da eta paperak oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuko da.

Facebook-en bidez egiten diren bozketen arteko zozketa automatikoki egingo du aplikazioak berak.

Honako hauek izango dira sariak:

Paperezko bozketa herrikoia (flyer-a):

- 100 €-ko saria eskudirutan, Trapagarango Udalak emana.

Zozketa 2026ko ekainaren 30ean, 11:00etan egingo da, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eta Baturiken Facebook orrian igorriko da.

Facebook-en bidezko bozketa:

- 50 €-ko hiru (3) erosketa-txartel bat, bat (1) irabazle bakoitzeko, Baturikek emana erosketak egiteko atxikitutako establezimenduetan.

Zozketa 2026ko ekainaren 30ean, 12:00etan egingo da eta Baturik-eko Facebook-ean argitaratuko da. Tokiko Enplegu eta Garapenerako Agentziak emango die horren berri irabazleei zozketa egin eta hurrengo egunetan, parte hartzeko erabilitako flyeretan adierazita dauden bitartekoak baliatuz.

Gaitutako hautestontzietan behar bezala zigilatuta eta beteta uztea flyerrak eta Facebooken horretarako prestatutako formularioa osorik eta behar bezala betetzeak suposatzen du parte-hartzaileek berariaz onartzen dituztela oinarri horiek guztiak.

OHARRA: Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, beste erakunde batzuek ematen dituzten sariak azken orduan aldatu edo bertan behera utzi ahal izango dira, eta horren berri izan bezain laster jakinaraziko da.

Udalak emandako goian aipatutako sariei dagokie sarien banaketa, oinarri hauetan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera arautuko da. Horietan aurreikusita ez dagoenerako, osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Udaleko Tokiko Merkataritza Saila izango da.

Parte-hartzaileen betekizunak: Ezin izango dute deialdi horietan parte hartu pertsona fisiko, juridiko edo entitateek, baldin eta deialdi bakoitzean ezarritako parte hartzeko baldintza espezifikokoak beteta ere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan dirulaguntzak jasotzeko ezarritako debeku-kausaren batean sartuta badaude. Era berean, parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere bai, aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritako moduan.

Udalak emandako sariak, guztira 100 €-ko balioa izango dutenak, 4310-47000 zenbakiko aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio.

Udalak emandako sari horiek saridunak Udaleko Enplegu eta Toki Garapenerako Agentzian horretarako ematen duen banku-kontuan ordainduko dira. Halaber, goian adierazitako betebeharrak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa erantsi beharko du.

BEDERATZIGARRENA.- Publizitatea

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Merkataritza Sailak eta Baturikiek –Trapagarango Merkataritza eta Ostalarien Elkartek– ahalik eta zabalkunderik handiena emango diote TRAPAGARANGO ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN XII. EDIZIO honi (2026) Deian eta beste egunkari batzuetan, webguneetan eta udalaren informazio-pantailan; eta erreportajea eta erakusleihen sustapena egingo dute Tele 7-n, sare sozialetan eta bere eskura dauden hedabide guztietan.

Publizitate honetan herriko Udalaren logotipoa jarri beharko da gutxienez, eta gomendagarria da Baturik eta gainerako erakunde laguntzaileen logotipoa ere agertzea.

HAMARGARRENA.- Obligazioak eta ez-betetzea

Establezimendu parte-hartzaileek Udalak eskatzen dien informazio guztia emango diote, lehiaketa honen kanpainako antolatzaile den aldetik bete behar dituen eginkizunetarako eta lehiaketa honetan parte hartzea ahalbideratu dieten edozein baldintzetan unean-unean gerta litezkeen aldaketen berri eman beharko diote.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak eta obligazioak ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekarriko du.

HAMAİKAGARRENA.- Datuen babesa

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak eta Trapagarango Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartek (Baturik) datuak biltzen dituzte XII. ERAKUSLEHIO LEIHAKETA antolatzeko, tokiko garapen ekonomikorako helburuarekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 2ko 2/2016 Legearen eta datuak babesteari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikularen arabera. Parte-hartzaileen eta zozketen irabazleen identifikazio-datu pertsonalak eta irudi-datuak hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie Udalaren eta Baturiken hedapen-kanal eta bitarteko elektronikoen bidez. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita horien tratamendua mugatzekoa edo tratamenduaren aurka egitekoa ere; informazio gehiago jaso dezakezu Udalaren edo Baturiken helbidera idatziz, edo helbide elektronikoa hauek zuzenduta: dbo-dpd.trapagaran@bizkaia.org edo baturiktrapagaran@gmail.com

HAMABIGARRENA.- Interpretazioa

Antolatzaileek eskubide izango dute Oinarri hauek interpretatzeko zalantzak sortzen dituzten edozein egoeratan, eta haien erabakiak behin betikotzat hartuko dira.